

# Aoizen ustez, euskal gatazkak erabat desitxuratu du kanpaina

HB gelditu nahi zutenek porrot egin dutela dio talde horrek

**F**loren Aoizen iduriko, Herri Batasuna isilarazi nahi zutenek ez dute euren helburua lortu, euskal gatazka izan omen delako hauteskunde kanpainaren ardatza. Gainera, gatazkari irtenbideren bat emateko «proposamen positibo bakarra» ezker abertzaleak egin duela esan du HBko bozeramaileak.



Floren Aoizek eta Karmelo Landak Iruñean egin zuten kanpainaren balantzea. OSKAR MONTERO

Ana Unanue / Iruñea

FLOREN AOIZEK eta Karmelo Landak bart gauean amaiatu den hauteskunde kanpainaren balantzea egin zuten atzo Iruñean. HBko ordezkarien arabera, kanpaina ez da demokratikoa izan, agerian gelditu delako ez dagoela edozein aukera politiko defendatzerik.

«Komunikabideetan ez ditugu aukera berdinak izan denok. Komunikabide publikoek agintean daudenei egin diete mesede eta pribatuek, berriz, indar atzerakoienei. Horrez gainera, epaileek eta poliziek ere parte hartu dute kanpainan, ezker abertzaleko hainbat lagun atxilotuz, espetxeratzuz edo auzipetuz», adierazi zuen Aoizek. Jon Idigoras eta Jaime Iribarren kartzelaratzeaz ari zen, jakina.

Ildo beretik, zenbait alderdi politikok hauteskunde kanpainaren hasieran indarkeriaz eta euskal gatazkaz ez hitz egiteko azaldu zuten asmoa ezerezean gelditu dela aipatu zuen. Aoizen iduriko, «Euskal Herriaren eta Espainiako Estatuaren arteko gatazka izan da hauteskunde kanpainaren ardatza» eta «gatazkak erabat desitxuratu du kanpaina». Hala ere, euskal gatazka konpontzeko «proposamen positibo bakarra» ezker abertzaleak egin duela esan duela dio.

«Ezker abertzaleak ez omen duela inolako irtenbiderik eskaini. HBko bozeramaileak pozik agertu zen talde horrek jendearen

aldetik jaso duen erantzuna dela-eta. Horrela, Anoetako ekitaldia hauteskunde kanpainako jendetsuena izan dela azpimarratu zuen: «Euskal Herriko ekitaldirik garrantzitsuenak izan zen independentziaren aldekoa, eta Estatuak ezin du hori irentsi. Bistan da HB geldiarazteko helburua zutenek porrot egin dutela».

**HBren alde bozkatzeko arrazoiak** • Karmelo Landak HBren alde bozkatzeko deia egin zuten euskal herritarrei, beste alderdi guztiek «alternatiba faltsuak» eskaintzen dituztelakoan. Landaren hitzetan, gainerako alderdien alde bozkatzeko «Espainiaren eta inposaketaren alde»

bozkatzeko da. «HBren botoa, berriz, Euskal Herria eraikitzeko da, geurea baita benetako alternatiba bakarra. Boto horrek min egiten die Espainiaren menpe nahi gaituztenei, eta Poliziari», gehitu zuen Landak.

Euskal Herria eraikitzeko ezezik, HBren aldeko botoa era bateko edo beste errepresioa jasanez dutenei elkartzatzea adierazteko ere baliagarria dela argudiatu zuen. Eta, azkenik, HBri emandako botoa «borrokarako botoa» dela aipatu zuen Landak. Horri lotuta, gaur bertan, arratsaldeko bostak eta erdietan Berriozarko Eguzki plazan Iribarren espertxeratzeko salatzeko manifestaldia egingo dutela gogorazi zuen.

## Euskara gehien kanpainen

HERRI BATASUNA izan da hauteskunde kanpainen euskara gehien erabili duen alderdi politikoa. Espainiako Kongresurako eta Senaturako zerrendetan hautagai euskaldun gehien aurkeztu duen indarra da, eta euskara izan du nagusi ekitaldietan. Hori nabarmendu zuen atzo HBk prentsa ohar batean. Hori dela-eta, euskaldun eta abertzaleei dei egin zuten «azken urteotan euskararen inguruan indar politikoen izan duten politika eta praxia azter dezaten eta koherentez jokatu datorren martxoaren 3an Herri Batasunaren aldeko botoa eman dezaten». HBk dioenez, «ur-

teotako praktikak eta hauteskundeetako hizkuntz jarrerak argi erakutsi du HB dela euskararen gaia seriotasunez hartzen duen indar politikoa bakarra».

Gainontzeko alderdi politikoen euskararekiko jokaerari dagokionez, PSEren, PPren eta IUren euskara erabilera oso eskasa izan dela dio HBk. «Indar horietatik ez dago, beraz, euskararentzako politika positiborik jasotzeko esperantzarik», iritzi dio. EAJren eta EAren jarrera hobea izanik ere, HBk uste du «leibitasuna helburutzat jarriagatik ere euskararen erabilera kaskarra» egiten dutela. G



Perez Ayala eta Navas, Bizkaiko zerrendaburuak, Javier Madrazorekin. SANTIAGO JIMENEZ / EFE

## PSOEek «dezepzionaturik» utzitakoen botoa nahi du IUk

Sozialistek eskuina boterera eraman dutela dio

Efe / Bilbo

JOSE NAVAS Kongresurako Bizkaiko zerrendaburuak PSOEren dezepzionaturik daudenen botoa eskatu die gazteei eta beste guztiei. «Aurreko bozketan ezker lagundu zutela pentsatu zuten, baina eskuina zela garbi geratu da», esan zuen alderdi sozialistari buruz.

Hauteskunde kanpainako jendaurreko azken agerraldian, Javier Madrazo IUko koordinatzailearekin eta Andoni Perez Ayala Senaturako hautagaiarekin agertu zen Navas prentsaren aurrean, botoak eskatzera.

Ezkerrari botoa emateak «Cuevas, Boyer eta Botinekin» harremanik ez izatea esan nahi du, Navasek esan zuenez. Gainera, hiru horiek PSOEren «esparru komuna» izan dutela ziurtatu zuen. Eta hauxe erantsi zuen: «Hiru horiek ez zuten greba orokorra lagundu, diru bereziak eraman zituzten, eta laguntza fiskalak izan dituzte».

IUk gizarteko pobreekin bat egiten duela azpimarratu zuen, halaber. «IUk lanik ez duten hiru milioi pertsona horiekin dago, lanik ez duten gazteekin, emakumeekin eta erretiroa kobratzen duten horiekin, gero eta gutxiago kobratzen dutelako», esan zuen Bizkaiko hautagaiak.

PSOEek 1993. urtean «eskuina geldiarazteko» botoak eskatu zituela gogora ekarri zuen. Hala ere, hori egin beharrean, «eskuinari boterea» eman diola ziurtatu zuen. «PSOEren politika ez da elkartzatzea izan, eta errenta handiak dituztenen alde egin du», esan zuen.

Javier Madrazok esan zuen ezkerreko aukera bakarra IU dela, «urte hauetan koherentzia, esku garbiak eta leialtasuna erakutsi duelako». PSOEek engaina ditzen ez uzteko eskatu zien, gainera, ezkerreko herritarrei. «Berritortzea lortzen badu, guztion aurka jarduteko legitimitatea izango du», ohartarazi zuen. X

**MARTXOAK 3**

**DONIBANE GARAZI VAUBAN SALAN BERTSO SAIOA**

**Aitor MENDILUZE**  
**Xabier EUZKITZE**  
**Andoni EGAÑA**  
**Jon SARASUA**  
**Xebastian LIZASO**  
**Angel M. PEÑAGARIKANO**

**Arratsaldeko 3etan**  
**ANTOLATZAILEA: IRULEGIKO IRRATIA**